



BERANGOKO UDALA

Hiriko bide publikoetan trafikoa, erabilerak eta segurtasuna araupetzen dituen ordenantzaren aldaketa.

Berangoko udalak, 2019ko azaroaren 26an egindako osoko bilkuran, Hiriko bide publikoetan trafikoa, erabilerak eta segurtasuna araupetzen dituen ordenantzaren aldaketa onartzea erabaki zuen. Aldez aurretik jendaurrean azalduta, Udaletxeko ediktu-taulan, eta 2019ko abenduaren 16ko 239 zk.ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean iragarkiak argitaratuz, erabaki hori automatikoki behin betiko bihurtu da, iragarki honen eranskinean agertzen diren terminoetan eta edukiarekin, ez baita alegaziorik aurkeztu informazio publikorako epean.

Berango, 2020ko urtarrilaren 31ean.-
Alkatea, María Isabel Landa Gaubeka.

ERANSKINA

Hiri izaerako bide publikoetan trafikoa, bide-erabilerak eta bide segurtasuna arautzeko udal Ordenantzaren aldaketa.

Aldaketaren zioen azalpena

Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Konbentzio Nazioartekoa, 2006ko abenduaren 13an Nazio Batuen Batzar Nagusiak onartua, 2007ko abenduaren 3an berretsi zuen Espainiak, eta 2008ko maiatzaren 3an hartu zuen

Modificación de la ordenanza municipal de ordenación del tráfico, usos y seguridad vial en las vías públicas de carácter urbano.

El Ayuntamiento de Berango, en sesión plenaria celebrada el día 26 de noviembre de 2019 acordó aprobar inicialmente la modificación de la ordenanza municipal de ordenación del tráfico, usos y seguridad vial en las vías públicas de carácter urbano. Previa exposición al público mediante la inserción de los correspondientes anuncios en el tablón de edictos del Ayuntamiento y “Boletín Oficial de Bizkaia” número 239 de 16 de diciembre de 2019, el citado acuerdo ha devenido automáticamente a definitivo, en los términos y con el contenido que figura como anexo al presente anuncio, al no haberse presentado alegaciones durante el período de información pública.

En Berango a 31 de enero de 2020.- La
Alcidesa, María Isabel Landa Gaubeka.

ANEXO

Modificación de la Ordenanza municipal de ordenación del tráfico, usos y seguridad vial en las vías públicas de carácter urbano.

Exposición de motivos de la modificación

La Convención Internacional sobre los derechos de las personas con discapacidad, aprobada el 13 de diciembre de 2006 por la Asamblea General de las Naciones Unidas,



BERANGOKO UDALA

indarra. Bada, konbentzioa horrek behartu egiten ditu estatu kideak zenbait neurri legegile, administratibo eta beste era batzuetakoak hartzera, konbentzioan aitortzen diren eskubideak gauzatzeko egoki direnak betiere.

Estatuaren eremuan, Desgaitasuna duten pertsonen eta euren inklusio sozialari buruzko Lege Orokorraren Testu Bateginak, azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartuak, –irisgarritasun unibertsalaren eta bizitza burujabearen printzipioekin bat etorritik– honako hau aurreikusten du 30. artikuluan: desgaitasuna dela-eta mugikortasun urria edo mugikortasun-arazo larriak dituzten pertsonentzako ibilgailuak aparkatzea errazteko neurriak hartu beharko dituzten udalek.

Bestalde, Trafikoari, motordun ibilgailuen zirkulazioari eta bide-segurtasunari buruzko Legearen Testu Bateginak, azaroaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartuak, 7. artikuluan honako eskumen hau ematen die udalei: zirkulazioaren udal ordenantzaren bidez, hiri barruko bideetan aparkalekuen banaketa ekitatiboa egin ahal izatekoa, honako pertsona hauen beharrezan arreta berezia eskainiz: ibilgailuak erabili eta mugikortasuna urrituko desgaitasuna duten pertsonak, horien integrazioa soziala sustatzekotan.

Horregatik, bide publikoan desgaitasuna duten pertsonentzako aparkalekuak erreserbatzeko aukera arautu nahi da, ibilgailu baten matrikulari bereziki esleituta daudenean, kasu horretan dauden pertsonentzako erreserbak egin ahal izateko, euren etxeetatik hurbil.

ratificada por España el 3 de diciembre de 2007 y que entró en vigor el 3 de mayo de 2008, obliga a los Estados Partes a adoptar todas las medidas legislativas, administrativas y de otra índole que sean pertinentes para hacer efectivos los derechos que en ella se reconocen.

En el ámbito estatal, por una parte, el Texto Refundido de la Ley General de derechos de las personas con discapacidad y de su inclusión social, aprobado por Real Decreto Legislativo 1/2013, de 29 de noviembre, en coherencia con los principios de vida independiente y de accesibilidad universal, en su artículo 30 prevé la adopción por los ayuntamientos de las medidas adecuadas para facilitar el estacionamiento de los vehículos automóviles pertenecientes a personas con problemas graves de movilidad o movilidad reducida, por razón de su discapacidad.

Por otra parte, el Texto Refundido de la Ley sobre Tráfico, Circulación de Vehículos a Motor y Seguridad Vial, aprobado por Real Decreto Legislativo 6/2015, de 30 de octubre, atribuye en su artículo 7 a los municipios la competencia para regular, mediante ordenanza municipal de circulación, la distribución equitativa de los aparcamientos en las vías urbanas, prestando especial atención a las necesidades de las personas con discapacidad que tienen reducida su movilidad y que utilizan vehículos, con el fin de favorecer su integración social.

Por ello, se pretende regular la posibilidad de reservar plazas de



BERANGOKO UDALA

Hori dela eta, hiri izaerako bide publikoetan trafikoa, bide-erabilerak eta bide-segurtasuna arautzeko udal Ordenantza aldatu nahi da, erreserba hauek arautuko dituen beste artikulua bat gehituz, honako testu honekin:

“87 Bis artikulua

1. Alkatetza ebazpenaren bitartez, bide publikoetan desgaitasuna duten pertsonentzako aparkalekuak erreserbatu ahal izango dira, ibilgailu baten matrikulari bereziki esleituta. Kasu horretan, erreserba hau erakutsi egingo da, desgaitasuna duten pertsonentzako aparkaleku-erreserbaren seinalearekin, eta kartel edo plaka batekin, baimendutako ibilgailuaren matrikula erakutsiz, bere beheko aldean jarrita.

2. Desgaitasuna duten pertsonentzat erreserbatutako aparkalekua, ibilgailu zehatz bati esleitzen zaionean, aparkalekua erabiltzetik kanpo geratzen dira gainerako erabiltzaileak, eta mota honetako aparkaleku erreserbatuak erabili ahal izateko desgaitasuna onartuta duten gainerako erabiltzaileak ere. Ondorioz, erreserba bere matrikulari esleituta duen ibilgailuak baino ezin izango du erabili aparkalekua, eta, salbuespen gisa, larrialdietarako ibilgailuek.

3. Bide publikoan, desgaitasuna duten pertsonentzako aparkalekuak erreserbatu

aparcamiento en la vía pública para personas con discapacidad, específicamente asignadas a la matrícula de un vehículo, a fin de poder hacer reservas para personas en estas circunstancias cerca de sus viviendas.

Por ello, se plantea modificar la Ordenanza municipal de ordenación del tráfico, usos y seguridad vial en las vías públicas de carácter urbano añadiendo un nuevo artículo en el que se regulen estas reservas, con el siguiente texto:

“Artículo 87 Bis

1. Mediante resolución de Alcaldía se podrán reservar plazas de aparcamiento en la vía pública para personas con discapacidad, específicamente asignadas a la matrícula de un vehículo, en cuyo caso esta reserva se indicará con la señal de reserva de aparcamiento para personas con discapacidad, y un cartel o placa indicativo de la matrícula del vehículo autorizado, colocado en la parte inferior del mismo.

2. Esta asignación a un vehículo concreto de una plaza de aparcamiento reservada para personas con discapacidad excluye el uso de la plaza por todas las demás personas usuarias, incluidas las demás personas que ostenten discapacidad reconocida para el uso de este tipo de plazas reservadas. En consecuencia, sólo podrán ser empleadas por el vehículo a cuya matrícula se haya asignado la reserva y, excepcionalmente, por los vehículos de emergencia.

3. Sólo se podrán reservar plazas de aparcamiento en la vía pública para personas con discapacidad,



BERANGOKO UDALA

ahal izango dira, ibilgailu baten matrikulari bereziki esleituta, soilik betekizun guzti hauek betetzen badira:

1. Ibilgailuak zirkulazio zerga Berangon ordaintzea.
2. Eskatzailea Berangon erroldatuta egotea.
3. Eskatzailea ibilgailuaren titularra edo gidaria izatea, edo ibilgailuaren EZ aseguru polizan, ohiko gidari bezala agertzea.
4. Eskatzaileak, desgaitasuna duten pertsonentzako aparkatze-txartela baimenduta izatea, indarrean, desgaitasuna duten pertsonentzako aparkatze-txartela arautzen duen martxoaren 22ko 50/2016 Dekretuaren arabera.
5. Eskatzailearen, eta ibilgailuaren titularraren familia-unitateak ez izatea ez jabetzan, ez gozamenean, ez erabilera-eskubidean edo ez antzekoetan, garaje-aparkaleku bat, edo, Berango udalerraren barruan, bere etxetik hurbil, aparkaleku bat, edo, hori izatekotan, irisgarritasun araudia betetzen ez duen aparkalekua izatea.
6. Eskatzaileak garraiobide kolektiboa erabiltzeko sailtasunak izatea: a) gurgildun aulkian dagoen erabiltzailea, edo b) ibiltzeko, bi bastoi erabili behar dituenean, ezinbestean (1971/1999 Errege Dekretuaren II eranskina).

específicamente asignadas a la matrícula de un vehículo, si se cumplen todos los siguientes requisitos:

1. Que el vehículo pague el impuesto de circulación en Berango
2. Que la persona solicitante esté empadronada en Berango
3. Que la persona solicitante sea titular del vehículo y conductor del mismo o conste como conductor habitual en la póliza de seguro de RC de vehículo
4. Que la persona solicitante tenga concedida tarjeta de estacionamiento para personas con discapacidad en vigor, según el Decreto 50/2016, de 22 de marzo, por el que se regula la tarjeta para estacionamiento de personas con discapacidad.
5. Que la unidad familiar del solicitante y de la persona titular del vehículo no tengan en propiedad, usufructo, derecho de uso o similar una plaza de garaje o plaza de aparcamiento en las inmediaciones de su domicilio dentro del municipio de Berango, o, teniéndolo, no cumplan normativa de accesibilidad.
6. Que la persona solicitante presente dificultades para utilizar transporte colectivo: a) usuario /a confinado/a en silla de ruedas ó b) depende absolutamente de dos bastones para deambular (anexo



BERANGOKO UDALA

7. Eskatzailea ibilgailuaren ohiko erabiltzea izatea.
 8. Ibilgailua egokituta egotea.
4. Desgaitasuna duten pertsonentzako aparkaleku-erreserbaren iraupena bost (5) urtekoa izango da, ibilgailu zehatz bati esleituko zaio, eta alkatetza ebazpenaren bitartez emango da. Hala ere, bost urterik behin luzatu ahal izango da erreserba, eskatzaileak luzapena eskatzen badu, epea bete baino lehen. Luzapen-eskaera egiteko, hasierako eskaerarako aurkeztu behar zen gutzia egiaztatu beharko da.
5. Aparkalekuaren erreserba automatikoki iraungiko da ibilgailua eskualdatzen bada, eskatzailearen heriotza gertatzen bada, eskatzaileak gidabaimena galtzen badu, desgaitasuna duten pertsonentzako aparkatze-txartela baliogabetzen bada, edo eskatzaileak ezin badu gidatu.
6. 3. atalean adierazitako betekizunen bat, inoiz betetzen ez bada, berehala baliogabetu ahal izango da erreserba, alkatetza ebazpenaren bitartez.
7. Bide publikoan, desgaitasuna duten pertsonentzako aparkalekuak erreserbatzeko eskaera, ukatu edo baliogabetu ahal izango da, interes publikoko arrazoiengatik, zirkulazioaren antolaketarako beharrezkoa bada, edo, eremu horretan hainbat eskatzaile daudelako, guztiei erreserba ematea posiblea izango ez balitz, inguruko gainerako herritarrei kalte larririk eragin barik.

II del Real Decreto 1971/1999)

7. Que el vehículo sea de uso habitual de la persona solicitante.
 8. Que el vehículo sea adaptado.
4. La reserva de aparcamiento para personas con discapacidad con asignación a un vehículo concreto tendrá una duración de cinco (5) años, y se otorgará mediante resolución de Alcaldía. Sin embargo, se podrá prorrogar cada cinco años, si se solicita la prórroga por la persona solicitante previamente al cumplimiento del plazo. La solicitud de prórroga deberá presentarse aportando la acreditación de todo lo señalado para la solicitud inicial.
5. La reserva de aparcamiento se extinguirá automáticamente en caso de transmisión del vehículo, defunción de la persona solicitante, pérdida del permiso de conducción de la persona solicitante, revocación de la tarjeta de estacionamiento para personas con discapacidad de la persona solicitante, o incapacidad para conducir de la persona solicitante.
6. Si se incumpliese en algún momento alguno de los requisitos señalados en el apartado 3, se podrá revocar de inmediato la reserva mediante resolución de Alcaldía.
7. La solicitud para la reserva de plazas de aparcamiento en la vía pública para personas con discapacidad, específicamente asignadas a la matrícula de un vehículo, podrá denegarse o revocarse por razones de interés público, por necesidades de ordenación de la circulación, e incluso por existir en el



BERANGOKO UDALA

8. Bide publikoan, desgaitasuna duten pertsonentzako aparkalekuen erreserbari, ibilgailu baten matrikulari bereziki esleituta dagoenean, tasa bat egokitu ahal izango zaio, dagokion ordenantza fiskalak horrela ezartzen badu.

ámbito varias personas solicitantes, si no fuera posible concederles a todas las personas reserva sin perjuicio grave para el resto de la ciudadanía del entorno.

8. La reserva de plazas de aparcamiento en la vía pública para personas con discapacidad, específicamente asignadas a la matrícula de un vehículo, podrá ser objeto de tasa si así se establece en la ordenanza fiscal correspondiente.

ALKATEA,

María Isabel Landa Gaubeka